

bidaiari

naiz: en bidaia aldizkaria

2023ko martxo | 018. zenbakia | 1,50€



BAC HA

Vietnamgo etnia eta kolore anitzen bazterra

LONDRES | ZEELANDA BERRIA | FORMENTERA | BACHICABO | SÃO MIGUEL

Badago ezagutzeko mundu bat



bidaiari
naiz:-en bidaia aldizkaria

11 ZENBAKI URTEAN, 15€

HARPIDETU ZAITEZ!

URTEKO HARPIDETZA Euskal Herrian 15€ · Ipar Euska Herrian 25€ · Estatu espainolean 18€ · Europan 50€

Bidal ezazu kupoi hau honako helbide honetara:

Bidaiari Portuetxe 23, 2. solairua 20018 Donostia (Gipuzkoa) EUSKAL HERRIA

Izena			
Abizenak			
Helbidea			
Herria	Posta Kodea	Herrialdea	
NAN	E-Posta	Telefonoa	
Kontu korrante zenbakia			
Kontuaren Jabea			

Nahiago izanez gero, mezu elektronikoa bat bidal dezakezu bidaiari@astero.net helbidera, kupoiaren azaltzen diren datuekin edo www.naiz.eus/bidaiari web orrian sar zaitezke eta harpideteko formularioa bete dezakezu.

Urruina distribution & services, S.L.-ren produktuei eta/edo sustapenei buruzko informaziorik jaso nahi ez baduzu, markatu X bat laukian ☐

Sustapen honen barruan jasotako datu pertsonalak Herritar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) eta Urruina distribution & services SL-en (Kale Nagusia 2 - 4, 48001 Bilbo) datu-base batean sartuko dira. Datuak guztiz konfidentzialak dira, datu pertsonalak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko lege Organikoari jarraiki. Nolanahi ere, eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko edo ezereztzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzu. Horretarako, Herritar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) helbidera jo behar duzu.

bidaiari 018

2023ko martxoa

Zazpi Haizetara
aldizkariaren 167.
zenbakia litzatekeena

AZALEKO ARGAZKIA:

Xabier BAÑUELOS

ARGITARATZAILEA:

Astero.
Herritar Berri SLU.
Zazpi Haizetara
aldizkariaren lan
taldeak ekoiztua.

EDITOREA:

Eguzki
Agirrezabalaga
eta Ibai Azparren

JATORRIZKO DISEINUA:

Grafik Sarea +
Artefakto

MAKETAZIOA:

Oiartso
Los Arcos Urbina

EGOITZA:

Portuetxe, 23 -2. A
20018 Donostia

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

bidaiari@naiz.eus

TELEFONOA:

943 31 69 99
www.naiz.eus/bidaiari

LEGE GORDAILUA:

01361-2021

INPRIMATZEN DU:

Printek
Inprimategia.
Zamudio



KULTURA ETA HEZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Gipuzkoako
Foru Aldundia



06 BAC HA Vietnamgo iparraldeko mendi artean kokatuta, Bac Ha-ko merkatuan ehunka pertsona biltzen dira astero, mendiko jendearentzat eta herrialdeko etnia ezberdinetarako topaleku gisa. Leku zoragarriak dituen herrialde bat aurkitu dugu, gastronomia bikaina duena, historia gatazkatsua izan arren atsegina dena eta, batez ere, barre egiten duen herrialde liluragarri eta koloretsua.



36 FORMENTERA Uhartea bisitatzeko modurik onena: bizikleta. Autoak debekatuta dauden txoko eta paradisuetara iristeko ibilgailurik egokiena da.

14 LONDRES HAURREKIN

Londresetik bidaiatzeko modu asko eta desberdinak eskaintzen dizkigu. Kasu honetan gure haurrak gidari ditugula hiria pixkanaka ezagutzen hasi gara.



30 ROCÍO GANDARIAS

Getxon jaiotako marinel hau Ingalaterratik Zeelanda Berrira joan zen bere bikotearekin, aluminiozko Cirrus belaontzian. Roge Blascok elkarriketa egin dio.



44 BACHICABO

Artzena mendilerroa Euskal Herriko mendebaldeko mugaldean dago. Mendikate dotorea da, hurbil dauden beste tontor batzuen sona ez badu ere.



52 **BERTATIK BERTARA: EGIN PLANAK!** Abiatu da txotx denboraldia Euskal Herriko sagardotegietan, “Egiteke duguna” Durangoko Museoan, Musika-Música jaialdia, Bilbon... 56 **HIRIAK LABURREAN** São Miguel, Azoreetako altxor handiena 60 **MUNDUAN PASIERAN** Siekopai, lurrik gabeko herri koloretsua, lurralde okupatuetan eskiatzea, argia eta ikatza, kontsumoari buruz hausnartzeko deia...



LORATZEN LEHENA

Nanjing-eko aranondo zaharrak, zuriz eta arrosaz dotore jantzita

Udaberrian naturak Nanjing-eko kaleak eta lorategiak lore ederrekin janzten ditu. Txinako ekialdeko Jiangsu probintzian, loreak erori ondoren, kolore arrosak eta zuriak estaltzen dute lurra, berdearekin kontrastatuz. Aranondoa bost eta sei metro artean haz daiteke, jatorriz Txinako hegoaldekoak dira eta duela 3.000 urte baino gehiagotik landatzen dituzte bertan. Egia esan, kultura eta natura batzea txinatarren tradizioaren parte izan da beti. Antzinako txinatarrentzat aranondoaren lorea lau landare nobleetako bat zen, orkidea, banbu eta krisantemoarekin batera. Txinako kultura tradizionalaren arabera, aranondoak, bere izaera noble, sendo eta apalarekin, arrakasta lortzeko inspirazioa ematen du, hotzak hezurak izozten dituen sasoiari loratzen den lehena delako.

Nanjingen, Aranondo Lorearen Nazioarteko 28. Jaialdia otsailaren 13an abiatu zen. 600 urteko aranondoak loratu ziren Xuanwu lakuko parkean. Han itsasontziak ibiltzen dira jendeak kapulu arrosa eta zurien loraldia ikus ahal izateko. Familia, bikote eta lagunak zuhaitzez beteriko bide idiliko eta parkeetan pasieran ibiltzen dira, aintziraren bihotzean dauden irletan. Gaur egun, jaialdia estatu mailako turismo-ekitaldi ezaguna bihurtu da herrialdean, baina atzerriar ugari ere bertaratzen da naturaren ikuskizun honetaz gozatzera eta lasaitasuna bila. Otsailean eta martxoan loratzeari buruzko jarduera tematiko ugari egiten dituzte, gainera, eta milioika bisitari erakartzen dituzte zuhaitzek. Pekinen, bestalde, Ming Dynasty City Wall Relics Park-en Plum Blossom jaialdia ospatzen dute urtero. Ming dinastiaren garaian eraiki zen parkea, eta lore hauez gozatzeko lekuri onena dela esaten dute. Naturaren eszena koloretsu hauek sari handia dira argazkilarientzat. STR/AFP

A young girl with pigtails, wearing a pink dress with white lace trim, stands on a concrete ledge. She is holding a large, colorful striped bag. Next to her is an orange plastic basket with a grid pattern. In the background, there is a blue tarp draped over a structure, a purple umbrella with white polka dots, and a yellow building with a blue door. A sign with the word "GIA" is visible on the building.

BAC HA

Koloreen azoka





Bac Ha Vietnamgo iparraldeko mendi artean dagoen hiri txiki bat da. Hango merkatuan ehunka pertsona biltzen dira astero, salerosketan jarduteaz gain, lagunekin elkartzeko edota bikotekidea aurkitzeko. Vietnamgo etnia bat baino gehiago ibiltzen da bufaloen eta era guztietako produktuen artean, baina batez ere h'mong loretsuak etortzen dira, beren jantzi koloretsuengatik hala deituak.

Testua eta argazkiak: **Xabier BAÑUELOS**

Vietnam hain gustuko zergatik dudan galdetzen di-datenean, beti erantzuten dut gauza bera, ez naizela batere originala. Izan ere, noizbait Indotxinako herrialdean izan den jende ugari ezagutzen dut, eta denak itzuli dira liluratuta. Eta ez da harritzekoa; izan ere, joan naizen bakoitzean niri gertatu bezala, izugarri ederra ez den arren benetan leku zoragarriak dituen herrialde bat aurkitu dute, gastronomia bikaina duena, historia gatazkatsua izan arren atsegina eta, batez ere, barre egiten duen herrialdea; han irribarrea ez baita turismo-eslogan bat, bertako giza akuarelaren identitatearen ikurra baizik.

Ezingo nuke erraz esan Vietnamgo zein parte gustatzen zaidan gehien. Baina ez dago horren beharrik. Iparraldea eta hegoaldea soilik dauzka si-lueta mehe eta kurbatuko lurralde honek, eta nik bata zein bestea ditut gustuko. Alabaina, gaur iparraldera joko dugu, Txinatik oso hurbil dagoen toki batera; zehazki, 63 kilometro mendebaldera jota, Lao Cai hirian Ibai Gorriaren gaineko zubi bat zeharkatuta, Asiako herrialde erraldoian egon gaitezke.



Gure helmuga Bac Ha da, iparraldeko goi-lurretan dagoen hiria. 900 metro inguruko altitudetan dago, Chay ibaiko mendiguneko tontorren artean erdi lotan. Bere inguruetan bizi diren 70.000 pertsonentzat barrutiko hiri nagusia da. Hiria, multzo urbano gisa, ez da bereziki erakargarria, eta ez du aparteko ondarerik, molde kolonialeko eraikin pare bat baino ez. Lehena, gotorleku frantziar zaharraren aurriak dira, hiriaren erdialdea menderatzen duen muinoaren gainean daudenak. Eta bigarrena Hoang A Tu ng jauregi ederra da, 1921ean Hoang Yen Tchao-k eraikia, Europako eta ekialdeko estiloak fintasunez eta harmoniaz konbinatuz. Baina ez dago interes handirik pizten duen beste ezer. Gainera, ia denbora guztian giroa oso motela da, hiria lozorroan dagoela dirudi, denbora geldirik balego bezala. Aurkezpen horrekin, ez dirudi merezi duenik hara iristen denbora galtzea. Galdera argia da, hortaz: zertara doa norbait Bac Hara?

ETNIAK ETA KOLOREAK Vietnamgo iparraldeko mutur iparraldekoenera bidaiatu dugun arrazoi beragatik joango gara Bac Hara, ingurunegatik eta paisaiagatik. Ez da hiri monumentalak, baina haren inguruneak berde iraingarri baten argitasun eta distira du. Bihurrituriko orografien berdea



da, berde heze eta epela, tontorrak estaltzen eta mendi-hegalak eskalatzen dituen. Azken horietan arroz terraza urpetuak daude. Profil konkortuek haranetara jaisteko modu bihurria dute, erraldoientzako eskailerak osatzen dituzten koskekin. Paisaia horren bila etortzen da munduko alderdi honetara etortzen dena.

Baina bada arrazoi hobe bat. Izan ere, giro motela asteko sei egunera mugatzen da, zazpigarrenean bizia pizten baita; kaleak esnatu egiten dira eta hiria lozorrotik ateratzen da ezustean. Egun horretan, tropelean jaisten da mendiko jendea, les montagnards –kolonia frantsesetik jasotako izena–. Eta dena goitik behera aldatzen da. Lehen barealdia zegoen tokian, bat-batean zalaparta lehertzen da. Hiria eraldatu egiten da, jendeak eraldatzen du, salerosketan txoko bakoitza betetzen duten ehunka pertsonak; eztanda moduko bat da, kolore-, berriketa-, barre- eta tratu-festa. Igandea da, azoka eguna. Vietnamek 100 milioi biztanle baino zertxobait gutxiago du. Ikuspegi etnolinguistikotik nahiko homogeneoa da, kontuan hartzen badugu biztanle gehienak, ia %90, viet edo kinh etniakoak direla. Hala ere, badira beste “talde nazional” batzuk ere, hala deitzen baitzaie ofizialki talde et-

Kolorez jantzita erosi, saldu, oparitu, jan eta irribarre egin, mendi berdeetako paisaia baten erdian.



**Bac Ha merkatua
mendiko
jendearentzako
topaleku bat da, eta
bertara jaisten dira
beren
produktuekin,
bertan hornitzen
dira eta bertan
harremanak
estutzen dituzte.**

nolinguistiko gisa aitortutakoei. Izan ere, bertako 54 etnietako bat da. Kinh-ak eta Mekongeko deltako khmer krom-ak herrialdeko eremu lauetan bizi dira gehienbat, baina iparraldeko erliebe irregular honetan dago herri eta hizkuntza aniztasun handiena.

Bac Ha inguruan horietako hamar bat daude. H'mong-ak nabarmentzen dira, miao ere esaten dietenak. Horiek XIX. mendean beren jatorrizko herrialdetik, Txinatik, hegoalderantz hedatu ziren eta lurralde hauetan ere ezarri zuten euren bizilekua. Gerra Sekretuan estatubatuarren alde borrokatu ziren, eta, esaterako, "Gran Torino" filmeko Walt Kowalski (Clint Eastwood) umore txarreko agurearen auzokideak h'mong-ak dira. Sei h'mong talde daude, eta igandero Bac Ha-ko merkatua betetzen dutenak h'mong loretsuak edo lore-hmong-ak dira.

Erabiltzen dituzten jantziengatik dute izen hori, bereziki emakumeen janzkeragatik, kolorez betetako lore irudiekun udaberriko lorategi bat dirudite eta. Oso jantzi landuak dira, eskuz egindako benetako filigranak eta kolore oso bizikoak; Guatemalako maien huipilak dakartzkigute gogora. Baina ez da hori azokara iristen den talde bakarra; badira dao-ak, thái-ak, hoa-k, la chi-ak... bakoitza bere janzkerarekin, eguna kaleidoskopio bihurtzen.

MERKATURA Goizean goiz iritsi gara, lehen postuak jartzen ari direnerako. Amen batean, salmahaien artean era guztietako jende mordoak dabil. Kalapitan, tratuan ari dira. Murmurio etengabe bat entzuten da. Zalaparta orokorra da, baina ordenatua eta neurritsua, Asiako jende-oldeek bereizgarri duten zuzentasuna galtzen ez duena.

Era guztietako produktuak aurkitu ditugu. Izan ere, iristen direnen helburua beren mendietako produktuak saltzea eta eguneroko bizitzarako behar duten guztia erostea da. Eta gu ere iritsi garenez, guri ere eskaintzen dizkigute. Hala, kamera lepoan eramanda eta azal zurikoak izanda ere, baten batek oilo bat, aza-zaku bat edo gaitz ororen kontrako sendagai bat erostea



iradokiko dizu. Jazarpenik gabe, hori bai, dena nahiko modu lasai eta jatorrean. Jakina, norbera harrituta geratzen da eskaintza horien aurrean, nork pentsa baitezake turista batek txerri bat erosiko duela. Baina saldu nahi duenarentzat, han bazaude agian behar duzulako da. Eta horrek, nolabait, adierazten du oraindik tokiko jendearentzako tokiko merkatu gisa eratu-tako harreman-eremu bat dela.

Merkatua hainbat zatitan banatuta dago. Bada, bai, bat turistentzat, artisautezko produktu eta halakoekin aparkalekutik jaisten den kalean. Baina hor amaitzen da. Behin behera iritsitakoan, gainerakoan gauza erabilgarriak, egunerokoak, praktikoak eta lanabesak dira nagusi. Alde batetik, kolore, usain eta zapora anitzetako jaki, fruta eta barazki saltzaileak daude; baita haragia Mendebaldeko animalistek jasango ez luketen eran salgai dutenak ere, eta arraina bizirik duten salmahiak; erosleak arraina hautatu ostean, saltzaileak aitzoarekin burua moztu eta erraiak ateratzen dizkio. Bestetik, edozein etxetan erabiltzen diren tresnak, oihalen eremua, espeziak, sendagaiak eta garbitzeko produktuak, txanponak eta zigiluak, in-tsentsu-barrak, likoreak eta abar daude. Aipatu ditugu txerri- eta hegazti-sekzioak, ahateak eta halakoak ere badirena, baina, ororen gainetik, gure arreta zaldien merkatuak, eta, batez ere, uretako bufaloen merkatuak erakarriko dute. Eta, nonahi, Vietnam izanik falta ezin den zerbait: jaki-saltokiak, mokadutxo bat edo oturuntza oso bat egin dezagun.

Emakumeak hizketan eta barrez ari dira; gizonak kokoriko jarrita esertzen dira biribilean, tarte bat elkarrekin igarotzeko, beren banbuzko hodi-pipan thuoc lao tabako gogorra erretzen duten bitartean. Izan ere, merkatu orotan bezala, eta batez ere komunitate asko sakabanatuta bizi diren landa-eremuetan izaten direnetan, saltzea eta erostea aitzakia polita da jendeak topagune bat izateko, harremanak izateko, are flirteatzeko ere. Bac Hak askotariko salgaiak dituen merkatu koloretsua eskaintzen digu, beste leku batzuk betetzen dituzten turisten begiradarik gabe. Sapa hurbil eta saihe-tsezinaren osagarri perfektua da.

GIDA PRAKTIKOA

NOLA IRITSI

Antolatutako bidaia bat izan ezean, onena gaueko trenean Hanoitik Lao Cairaino joatea da (5 ordu inguru), eta handik autobusez Bac Haraino.

ZENBAT DENBORA BEHAR DA

Azoka bisitatzeko nahikoa da goiz bat. Horren osagarri, arratsaldean paseotxo bat egin daiteke inguruetan.

INGURUAK

Can Cauko animalia-merkatua bisita daiteke (20 kilometrorra – larunbatak), baita bestelakoak ere; esaterako, Coc Ly-koa (astearteak) eta Lung Phin-ekoa (igandeak). Ban Pho herria ere interesgarria da (bertako likorea proba daiteke, eta txalupaz Chay ibaian gora joan).

NON LO EGIN

Gaua igarotzekotan, aldeztu aurretik erreserbatu behar da.

HAURREK SORTUTAKO ABENTURA LONDRESEN

Sorry! Umeak gara







Londresera umeekin? Ziur al zaude? Bai zera! Jende asko harritzen da haurrekin atzerrira bidaia egitea bururatzen zaizunean. Baina zergatik?: beldurra, deserosotasuna, ziurtasunik eza, ez jakitea... Arrazoiak edo aitzakiak? Berdin da, egia esateko ez da hain zaila eta, aldiz, oso aberasgarria izan daiteke bai haientzat bai helduentzat. Eta Londres helmuga oso aproposa da lehen aldirako.

Testua: **Itsaso B. GANUZA** Argazkiak: **Getty Images**

Bidaia bat gure buruaren barnean gorputza hartzen hasten denean behin eta berriro, gauza berberei begiratzen zaie, hots, monumentuak ikusi, kalez kale ibili, lekuak ezagutu, erosketak egin... betiere helburu zehatza abiapuntutzat harturik, hau da, ahalik eta gauza gehien egitea. Umeekin bidaiatzen denean, berriz, beste mota bateko asmoa izan behar dugu kontuan, ez badugu nahi behintzat haurrak aspertu eta nagusiok zora gaitzaten. Bidaia bizitzaren joan-etorrian murgilduta sortuko zaie, eta beraien izaerarekiko harreman zuzena izan dadin ahaleginduko gara hasiera-hasieratik.

Horixe bera izan zen gure eginkizunaren ardatza, gure seme-alabekin Londresera joatea bururatu zitzaigunean. Bikote bakoitzak bere umeak ezagutzen ditu, baina, hala eta guztiz ere, ez dago sobera haiek zer egingo luketen galdetzea, behin baino gehiagotan nabarmen harritzen baikaituzte gazte-txoek dituzten gogo, gustu, jakinmin eta nahiek.

BIDAIA BIZI Gure aurrean hiri berri bat daukagu, guztiz ezberdina, ezezaguna eta arrotza, baina aldi berean oihuka ari zaiguna hartan barnera gaitezen. Lurrari ezohiko usaina dario eta haizeak giro arraroa dakarkigu; hau dena, ordea, zeharo erakargarria. Metrora abiatu eta planoa eskuratu dugu, eta horra hor non agertu zaigun gure lehenengo betebeharra: labirinto itzelak irentsiko gaitu eta ez dakigu oso ondo hemendik onik ateratzeko gai izango garen. “Ama, mesedez, jakina baietz! Ekarri planoa eta denon artean topatuko dugu bidea”. Esan eta egin, baita ondo moldatu ere, geltoki ugaritasuna, linea aldatu behar izatea, denboraren neurketa, dena





Erreportajea abiatzen dituen argazkietan, Dorre Zubia Tamesis ibaia zeharkatuz, eta Londresko dorrea iparraldeko ertzean. Ezkerrean, London Eye-ko geriza Jubilee Gardens-ko belar gainean, Harry Potteren 9 3/4 Plataforma Kings Cross-eko tren geltokian, Leadenhall Merkatua, metroa eta hiri-izaera Londresko parkeetan.



**Bidaiatzeko beste
modu bat berpiztu
dugu gure
motxilan.
Londresek hori
lortzeko aukera
ezin aproposagoak
eskaintzen dizkigu;
eta hiriari
pixkanaka
hurbiltzen ari
gatzaizkio, gure
umeak gidari
ditugula.**

dago jolasaren barruan, eta umeek primeran eraman gaituzte Londresko nahaspila sakon eta zabal horretan zehar.

Metrotik kanpora irten bezain laster irudimena nagusitzen da gure inguruan. Hiri honetako edozein auzok, kalek edo txokok bere historia baita-karkigu gogora. Gu ere, nagusiok, prest gaude abenturaz osaturiko ibilbidea egiteko; beraz, hortxe gaude “Diagon Karrikaren” erdian, magia egiteko behar diren tramankulu guztiak erosten (Leadenhall Market, “Harry Potter” filmetako zenbait sekuentziaren grabazio tokia). Halaber, King’s Cross geltokira hurbildu eta Hogwartsera eramango gaituen tren hartu ahal izango dugu. Baina abentura ez da honekin amaitzen; alderantziz, hasi besterik ez dela egin esan genezake. Hurrengo urratsek Sherlock Holmesengana garamatzate, harekin batera bere etxea ezagutzeko aukera bikaina emanez, eta etxea ez ezik baita bere etsai nagusienetako bat ere: Moriarty doktorea. Bizi-bizi ari gara, baina bizitzak ere baditu kontuz ibiltzeko uneak eta egoerak. Horretaz konturatu gara, bai, Whitechapel auzoan barna ibili ahala. Hemendik gelditu ziren sakabanaturik Jack the Ripper izeneko hiltzaile ospetsuaren aztarnak, kaleetako bizitasunaren erdian batzuetan suerta dakigukeen errealitate mingotsa.

IRAGANA ETA ORAINA GUGAN ELKARTZEN DIRENEAN Poliki-poliki Londres hiria pixka bat gurea balitz bezala sentitzen hasi gara. Dagoeneko ez gaude harrietatik horren urruti, eta, gure umeen begietatik so eginda askoz hurbilagoa sumatzen dugu: “Begira antzinako zubi horrek dituen dorreak! Dotoreak dira oso, baietz?; eta errekaen bestaldean dagoen gaztelu horretan nor bizi zen? Goazen, goazen noria itzel horren goiko aldetik zubia eta gaztelua nola ikusten diren begiratzera...”. Dena gure esku dago, iraganeke “London Tower”, oraingo “London Eye” eta betiko haien arteko elkarbidea izango den “Tower Bridge”.

Bidaiariak bezala haurrak ere ez dira inoiz geldirik egoten. Leku guztiak ditugu aztertzeko, aldapa eta eskailera guztiak igotzeko, zubiak eta gotorlekuak zeharkatzeko. Oraingo honetan, hiri honetako historiak agurtzen digu ozen eta argi, baina ahaztu gabe egungo bizimodua indar osoz ari zaigula bultza eta bultza. Horretan datza gure ibilbide zehatz honetako ikasgai berezia, hots, hauxe izango dugula: iraganeke eta oraingoa elkarturik topatzea. Londres hiriari pixkanaka hurbiltzen ari gatzaizkio, gure umeak gidari ditugula. Beraiek zer ikusi eta zer egin nahi izandako horren arabera mugitzen gara gu, nagusiok ere.

Era horretan, bidaiatzeko beste modu bat berpiztu dugu gure motxilan. Londres hiriak, gainera, hori lortzeko aukera ezin aproposagoak eskaintzen dizkigu; hara hor, hiritik irten gabe naturari zeharo loturiko ibilbide zoragarriak, “Hampstead Heath” eta “Highgate Wood”, hain zuzen ere. Lehenengoa, Londresko toki irekien arteko politenatarikoa, zuhaitz eta mendixkez osaturik agertuko zaizkie geure oin ibiltariei. Bigarrenak, ordea, baso handi baten itxurakoa izanik, aukera ezberdinak jarriko dizkigu parean: ibilbide ederrak, kirola egiteko ekintza ezberdinak, hegaztien behaketa... Gure kasuan, jolasa eta inguruaren ezagupena izan dira egokitu zaizkigun eginkizun gogokoenak, batez ere guregana urtxintxa polit bihurri haiek hurbildu direnean. Ezin lotsagabeago, hara non datozkigun zuzen-

zuzen janari bila, jolasteko gogoz eta haien abiaduraren ikusgai kukuka dabilzkigula. Une aproposa da naturaz goza dezagun lasai asko, haizearekin eta lurrarekin harremanetan jartzeko, haiekin zein basoetako biztanle ezberdinekin bat eginik. Ez da hau izango aukera bakarra, kontuan hartuz gero “Green Park” eta “Hyde Park” leku ezin hobeak direla atseden eta jolas uneak bilatzen dituenarentzat: oso garrantzitsuak haurrekin bidaiatzen denean.

MOMIA BAT DINOSAURO BATEN GAINEAN Lekuan leku eta bertan dagoenari mami osoa atera nahian, Londresek beste mundu batzuetan sar tzera gonbidatzen gaitu. Gu, laurok, prest baino prestuago agertzen gara, gogoz beteta, biziki urduri, amorratzen... gure zain ditugu antzina bizi izan ziren herrietako kultura, artea, izaera, ohitura harrigarriak; eta halaber gure lurra eta bizitza bera nola sortu ziren ezagutzeko bidea. “British Museum” alde batetik, eta “Natural History Museum” bestetik, adiskide eta bidelagun gerturatzen zaizkigu. Ekin diogu, ba, bideari, baina bi urrats ibiltzea nahikoa izan da gure egunerokotasuna hainbat urte atzera bidaltzeko, era berean, gu ere, denboran zehar bidaia egiten ari garela. Batbatean diplodoco baten hezurduraren aurrean gaude, sekulakoa, baina ez bakarra, apur bat aurrerago kobazulo erraldoi baten barruan topa baitezakegu geure burua, dinosauro ezberdinez inguratuta. Dena den, ez da hortxe amaitzen gu guztion harridura, onena hurrengo tunelean entzuten hasi baikara: guri begira eta orroka ari zaigun “T-Rex” beldurgarria aurkitu dugu. Aro ezezagun honetan denetarik bizi izateko aukera dugu, ekaitzek sortzen dituzten indarrak, lurrikarek eragindako lurren joan-etorriak, sumendietako su jarioak eta Ama Lurraren bihotza bera ere.

Errealitatea eraldatu egin dugula ematen du. Baina ez dugu egoera berri honetatik atera nahi, ez horren goiz bederen. Umeei begiratuta, buruan ideia bera dugulako, barre egiten diogu elkarri. Ez, ez dugu oraindik denboran zeharkako bidaia amaitutzat joko, antzinako herrien artean zer egin, zer ikusi eta zer ukitu badaukagu eta. Hortaz, harriei begira jarri gara, eskulturen lekua hartu dugu eta momia zaharrei galdetu diegu. Dena baliagarria da gure irudimenari hegoak emateko. Ezer ez da gutxi, eta guretzat opari bihurtzen da aurkikuntza bakoitza. Ez gaude galduta, bidaia berezi honetan goazen bitartean. Bidaia eta bidea gureak dira, gertakizunak eta pasadizoak guregandik ateratzen baitira, eta irudikatzen duguna errealtatatera erakartzeko gai ikusten dugulako geure burua. Hauxe gozamina, hauxe barre egiteko gogoa, momia harritzko zaldi baten gainetik erortzeko zorian egon denean; hauxe zoramena, gurasook umeak izateko gaitasuna berreskuratu dugu eta.

Izugarri gustatu zaigu Londres hiria. Barne-barnetik dastatzen saiatu gara, eta, seguru asko, ideia horretan beste eginkizun batzuetan baino gehiago sakontzen ibili ere. Baina horixe bera zen gure helburua hasieratik, hau da, ikusten genuena sentitu eta gozatu gure seme-alabekin batera, haiek duten ikuspuntutik ahalik hurbilen egonda. Denok gara bidaiariak; horregatik, denok parte hartu behar dugu bidaian. Bidaiari txikiek beti dute zerbait berria aztergai eta, batez ere, aztertzeko modu berezia. Umeak ume... eta bidaia honetan nagusiok ere bai, zergaitik ez?

GIDA PRAKTIKOA

NOIZ

Berdin dio, Lonndresek beti duka nahikoa eginkizun umeek eta nagusiek elkarrekin partekatzeko.

OSTATU

Kontuz, hotel eta aterpetxe batzuek ez dituzte umeak onartzen: ziurtatu erreserbatu baino lehen.

JOSTAILU-DENDAK

Harrigarriak eta..., arriskutsuak! Helduak ere umeak bihurtzen dira: Hamleys, Benjamin Pollock's Toyshop eta “Toy Kingdom”, Harrods-ko jostailuen atala.

AURREZTU

Jarduera eta leku ugari dira dohan edo merkeago umeentzat. Eta familientzat London Pass txartela aproposa izan daiteke.





Kautxua

«negar egiten duen negozio»



ArgazkiaK: Jack TAYLOR

Thailandia kautxu naturalaren munduko ekoizle handiena da. Izan ere, 2021ean munduko izakinen ia %40 hornitu zituen. Baina ez du unerik onena bizi: Txinako prezioen geldialdiak eta kautxu jasangarriari buruz Europar Batasunean sartzen ari diren arau berriek finantza-zailtasunak sortu dizkiete ekoizleei, dagoeneko zaila den negozio batean.









Thailandia kautxu naturala esportatzen duten herrialdeen zerrendaburu izan zen 2022an, 4,17 milioi tonako bidalketekin. Alongkorn Ponla-boot Nekazaritza eta Kooperatiba ministroaren datuak dira, esportazioen urteko %3,4leko hazkundea ospatzen duen Gobernuak kidea. Hala ere, esportazioen ia erdiak Txinara bideratu ziren, Thailandiatik eratorritako kautxua eta produktuak hartzen dituen merkaturik handiena baita. Asiako erraldoiaren prezioen geldialdiak eta kautxu jasangarriari buruzko Europar Batasuneko arau berriek ekoizpena zaildu dute.

Kautxu izena jatorrizko "cautchouc" hitzetik dator, Amazoniako berezko hizkuntza indigena bateko hitza, eta "negar egiten duen zuhaitza" esan nahi du. Definizio hori oso egokia da, Hevea brasiliensis zuhaitzak esne mota bat isurtzen baitu. Esne hori latexa da. Hala ere, munduko beste puntara joan behar dugu, Asiako hego-ekialdera, ekoizle nagusiak aurkitzeko. Thailandian azken 30 urteetan %300 hazi da produkzioa. Kautxuaren ekoizpenaren mende dago 10 thailandiarretik bat. Heveak lau egunetik behin odolusten dira, ebaketa koagulatu eta zuhaitza berreskuratu ahal izateko. Izerdia gauez biltzen da hamabi lanorduko lanaldietan, eta familia batek 9,9 dolar baino ez ditu lortzen egunero. Hori gutxieneko soldata bat baino gutxiago denez, ia langile guztiak kanbodiarrak dira.

Kautxu naturala bereziki erresistentea da, malgua eta oso iragazgaitza. Gomazko ia guztia egiteko erabiltzen da, eskularru sanitarioetatik edo kondoietatik hasi eta autoen gurpiletaraino. Tonako prezioa hiru aldiz alda daiteke hilabete batetik bestera Shanghaiko Etorkizuneko Burtsan, eta azken urteetan balio oso baxuetan mantendu da eta ekoizpena jaitsi da. Izan ere, munduko beste leku batzuetako nekazariak tokian tokiko patogenoei aurre egin behar diete, hala nola sustraiaren usteltze zuriaren gaixotasuna eta ahur-oliba landaketatik jauzia egin duten izpi batzuen eragina. Aldaketa klimatikoak ere bere arrastoa utzi du: Thaiandiako kautxuaren ekoizpenean lehortekak eta uholdeak izan dira azken urteotan.

Baina Txinako prezioen geldialdiak, AEBekin merkataritza gerra baitean murgilduta dagoenak, eragina izan du ekoizleengan. Eta are gehiago Europar Batasuneko arau berriak, baso-soiltzea eragiten duen zenbait produkturi, besteak beste kautxuari, betoa jarri diolako. EBk milioi bat tona kautxu natural baino gehiago kontsumitu zituen 2020an ibilgailuen pneumatikoetarako.

Gainera, ordezkioak bilatzen ari dira kautxuaren eskasiagatik eta ekoizpen-arazoengatik. Ohioko Estatu Unibertsitatean kautxuzko zuhaitza ordezkatzeko erabil daitezkeen landareak aztertzen ari dira. Kazakhstango lehoiaren hortza hautagai bat izan daiteke. Prest dago hiru hilabeteren buruan uzta biltzeko, eta hazi ugari sortzen ditu, eta horrek birlandaketa eta ekoizpenaren handitzea errazten ditu, baina Thaiandiako industriadik indartsuenetako bati eragingo lioke.





Rocío Gandarias Nabigatzailea

Belaz Zeelanda Berriraino

Testua
Roge BLASCO
Argazkiak
Rocío GANDARIAS

Rocio Gandarias, Getxon jaiotako marinela, Ingalaterratik Zeelanda Berrira joan zen “Cirrus” belaontzian, Gaspar Vanhollebeke kidea-rekin. Aucklandeko Harauki badiara iritsi eta han geratu ziren. Lau urte daramatzate han, lana aurkitu dute eta bi haur jaio zaizkie. Rociorekin egon ginen Getxon, familia bisitatzeke egin zuen bisitan.

Rocio Gandariasek eta Gaspar Vanhollebekek itsas arkitektura ikasi zuten Ingalaterran. Ikasketak amaitutakoan, “Cirrus” belaontzia erosi zuten eta munduari bira emateko asmotan Zeelanda Berriraino iritsi ziren.

Southamptondik abiatu ziren, Getxon gelditu ziren aldi batez, ondoren Kanarietara joateko. Hierro uhartetik Ozeano Atlantikoa zeharkatu zuten Frantziako Antilletaraino, Amerikako kontinentea jo zuten Cartagena de Indiasen, eta Kuna Yala artxipelagoa bisitatu zuten. Panamako kanala igaro zuten, Ozeano Barean barrena, Zeelanda Berrirako bidean.

Zeelanda Berrira iristea zen helburua, eta han aldi baterako finkatzea?

Gure helburua Zeelanda Berrian sartzea zen, urte pare bat igarotzea eta nabigatzen jarraitzea. Baina oraingoz hemen geratu gara.

Itsas arkitekturako ikasketak amaitu ondoren, “Cirrus” erosi zenuten lortutako aurrezkiekin. Dagoeneko bi ozeano zeharkatu dituzue eta, abenturan zehar egin dizkizudan elkarrizketengatik, badirudi dena oso ondo joan dela.

Egia esan, ez dugu ezbehar handirik izan. Itsasontzia nahiko txikia da, eta esan ohi da: itsasontzi txikia, arazo txikia. Guztiz ados nago esaldi horrekin.

Zerikusia izango du itsas arkitektoak izateak eta itsasontzia ondo ezagutzeak. Marinel onak egin zarete?

Itsas arkitektoak izatea garrantzitsua izan zen, baina uste dut marinel bihurtu ginela bidaian. Ondo ezagutzen dugu “Cirrus” ontzia, osorik hustu egin genuelako eta Getxon prestatu genuelako, nire aita Gonzalo Gandariasen laguntzarekin. Aitak belaontziak eraikitzen eta prestatzen ditu. Nabigatu ahala, gero eta gehiago ikasi genuen. Azkenean, Gasparrek eta biok ez genuen hitz egin behar maniobrak egiten genituenean elkar ulertzeko.

Nolakoa izan zen Ozeano Atlantikoaren lehen zeharkaldia zuentzat, Hierrotik Maria Galantera, Frantziako Antilletan?

Bidaia honetan bi lagun etorri ziren. Beraz, lau izan ginen. Nahiko haize izan genuen, popako 25 korapilo inguru txopan ia egunero. Alisioek bultzatzen gintuztenez, oso azkarrek izan ginen. Itsasontzira ohitzen joan ginen eta dena oso ondo joan zen.

Antilletara, Cartagena de Indiasera (Kolonbia) eta Kuna Yalara (Panama) iritsi zineten. Paradisua dela esaten dute. Egia al da?

Ikaragarria da. 365 uharte dira, eta lurralde kontinentalaren zati bat ere beraiena da. Paisaia ederra da, eta interesgarria da hango biztanleek antzinako tradizioekin jarraitzen baitute.

Kuna Yalaren ondoren, 2018ko apirilean, Panamako kanala igaro zenuten Ozeano Barea

*«Ondo ezagutzen dugu
'Cirrus', Getxon prestatu
genuelako, nire aita
Gonzalo Gandariasen
laguntzarekin. Nabigatu
ahala, gero eta gehiago ikasi
genuen. Maniobrak egiten
genituenean, Gasparrek eta
biok ez genuen hitz egin
beharrik elkar ulertzeko»*



zeharkatzeko asmoarekin, ozeanorik handiena. Txiki geratzen al da Atlantikoarekin alderatuta?

Pazifikoa bakarrik geratu ginen Gaspar eta biok. 30 egun behar izan genituen Panama Hiritik Nuku Hiva uharteraino, Markesak uharteetan handiena, Polinesia Frantsesean. Iritsi ginenean, alde batetik ilusioa egin zigun, baina bestetik nabigatzen jarraitu nahi genuen. Bidaia hain ona izan genuenez, ez zitzaigun axola lurra zapaltzea.

Hara!, hilabete bat igaro zenuten lurrik ikusi gabe.

Gezurra dirudi, baina hori izan zen errealitatea. Ez zitzaigun axola pixka bat gehiago nabigatzea.

Markesetara iritsi aurretik, balea batekin topo egin zenuten. Zer gertatu zen?

Nik neraman lema. Azkar samar nabigatzen ari ginen, eta halako batean: danba, danba, danba! Oihu egin nuen. "Zer arraio!", esan zuen Gasparrek: "Zer gertatu da?". Orduan balea bat ikusi genuen, bazihoala. Uste dut ez geniola minik egin, eta hark ere ez itsasontziari, aluminiozkoa baita.

Ozeano Barean, Markesak, Tuamotu, Tahiti, Tonga eta Sozietate uhartetan egon zineten. Non geratu nahi zenuten luzaroago?

Oso zaila da aukeratzea. Markesak txundituta utzi ninduten, beharbada Polinesia bisitatu genituen lehenak izan zirelako. Jendearen adeitasunak eta haien kulturak atentzioa eman zidan.

Azaroaren 14an lur hartu zenuten Zeelanda Berrian, urte eta erdiko zeharkaldiaren ondoren. Nolakoa izan zen Zeelanda Berriarekin topo egitea?

Gazi-gozoa izan zen, alde batetik, bidaia amaitzen zelako; eta bestetik, kokatzeko asmoa genuen herrialdera iristen ginelako. Zeelanda Berria kolpe moduko bat izan zen, Ozeano Bareko beste uharte apalago batzuk bisitatu ondoren. Berriz zibilizazioan sartzea bezalakoa da: supermerkatuak, automobilak eta beste guztia

Zuen asmoen barruan al zegoen Zeelanda Berrian zenbait urtez geratzea?

Bidaian gure aurrezkietatik bizi izan ginen. Baina Zeelanda Berrira iritsi ginenean amaitu



egin ziren. Beraz, bagenekien gelditu egin beharko genuela lan egiteko. Gure planaren barruan zegoen geldialdiak egitea nahikoa diru ez genuenean. Zeelanda Berriko egonaldia noiz artekoa izan zitekeen ere ez genekien, baina covid izurritearekin ezin izan genuen irten, eta hantxe geratu behar izan genuen.

Nola lortu duzue bizitza berri horretan integratzea, Europa utzi eta itsasoan denbora eman ondoren?

Gu nabigatzen ari ginela, Gasparrek gestioak egin zituen Ingalaterran lan egiten zuen enpresarekin, Zeelanda Berriko bulegoan postu bat eskaini ziezaioten. Zortea izan zuen, eta lan-eskaintza horri esker lortu genuen bisa. Azaroan iritsi ginen eta ni otsailean hasi nintzen lanean. Biok itsas industrian egiten dugu lan. Iritsi orduko Gasparrek maorien hizkuntza eta kultura ikasteko izena eman zuen. Hasieran itsasontzian bizi ginen, baina haurdun geratutakoan etxe bat alokatzea erabaki genuen.

Itsasoarekin zerikusia duen guztiak onarpen handia du Zeelanda Berrian?

Elkarrizketa hau zabaltzen duen orrialdean, Rocio Gandarias, Panamatik Markesa uharteetara egindako bidaian, urre koloreko urraburu batekin. Lerroon gainean, Rocio Gasparrekin batera, «Cirrus» belaontzian tropikoan nabigatzen.



«Pazifikoan bakarrik geratu ginen. 30 egun behar izan genituen Panama Hiritik Nuku Hiva uharteraino iristeko. Iritsi ginenean, alde batetik ilusioa egin zigun, baina bestetik nabigatzen jarraitu nahi genuen»



Itsasontziekiko zaletasun handia dago, ia mundu guztiak du arrantza ontzi bat edo belaontzi bat. Itsas industria nahiko handia da, kontuan hartuta 5 milioi biztanle baino ez dituela. Enpresa askok ontziak eraikitzen dituzte nazioartean. Adibidez, nirea ingeniariartzakoa da, eta merkataritza eta arrantza ontziak eraberritzen aritzen da, bai hemen, bai European.

Zeelanda Berria bi urtez itxita egon da atzeritarrentzat covid pandemiaren ondorioz. Horrek aukera eman dizue tokia sakonago ezagutzeko?

Baietz esango nuke. Denbora eman digu bere bizimoduaren sartzeko. Gozamina izan da, lekuetara joaten ginelako eta turismorik ez zegoelako. Haurakiko golkoa ezagutu dugu batez ere, uharte piloa baitago han. Ahal dugun guztietan joaten gara itsasontziarekin uharteren batera. Hego Uhartera ere joan gara Queenstown bisitatzeraz; menditsua da eta eski-pistak ditu. Oro har, natura asko dago gozatzeko, gizakiak kaltetu gabea.

Zeelanda Berrian bizitzearen onuretako bat kirola egitea eta naturarekin harremanetan bizitzea al da?

Bai, asko gustatzen zait horregatik. Auckland hiririk jendetsuena da, baina ia ez zara konturatzen hiri handi bat dela, hondartzak eskura dituzulako, eta uhartez betetako badia bat. Itsasontzi bat edukita gozamina da. Eguraldi ona egiten du urterik gehienetan, neguan izan ezik.





Hondartzaren ondoan bizi gara eta egunero lan egitetik irteten garenean gozatu egiten dugu.

Beraz, bizi-kalitatea dago?

Oso ona. Lanaren eta aisialdiaren arteko harremana orekatua da; izan ere, arratsaldeko 4etan edo 5etan kanpoan gaude, eta hondartzaz gozatu dezakegu uretako kirolak eginez, hala nola surfa, kite surfa eta abar. Gainera, pasealeku asko daude basoan eta mendian.

Antipodetan ama bihurtu zara, Unai eta Eneko zure bi haurren jaiotzarekin. Nolakoa da zure jatorritik hain urrun dagoen leku batean ama izatea?

Bi haur kiwi ditugu. Zeelanda Berria herrialde ona da haurrak izateko, oso segurua eta lasaia delako eta ingurune natural batean libre hazi daitezkeelako. Egia esan, hau oso urrun dago. Horretaz konturatzen zara Europara hegaldian itzultzen zarenean: 35 orduko bidaia eta hiru hegazkin.

Orain lau zarete munduari bira ematen jarraitzeko, zuen bi semeekin. Prest zaudete lurraren inguratzea osatzen jarraitzeko?

Ez dakit "Cirrus" ontzian izango den edo ez, baina munduari bira eman nahi diogu. Agian belaontzi handiago batean, orain lau baikara. Gure haurrak itsasontzira ohitzen ari gara, asteburuetan irteerak eginez. Haurren gurasoak marinela dira, eta ez dute beste erremediorik.



Gaspar Vanhollebekeren marrazkiak. Bertan, etxe orratzak ikus daitezke Cartagena de Indiasen; belaontzi batzuk, Saint-Louis de Marie-Galanten, Guadalupe artxipelagoan, Frantziako Antilletan; eta katamaranak Gosier uhartetxoan (Guadalupe). Halaber, «Cirrus» belaontzian eginiko maniobra, eta bikotea haurdunaldiko une batean.



FORMENTERA

Bizikletarako ere paradisu

Testua eta argazkiak: **Urtzi URRUTIKOETXEA**





Uhartearen txikitasunak, giro lasaiak, harea zuriak eta turkesa urek ezagun egin dute Formentera azken urteotan, baita jende famatuaren leku kutuna izateak ere. Horiekin batera, baina, herri atseginak, txoko interesgarriak eta aparteko egoera fisikoan ez dagoenarentzat ere bizikleta ibilbide bikainak dituen txokoa da. 30 bidexka baino gehiago dira, ia autorik gabe edo motordun ibilgailu oso gutxirekin, uharteko txokoetan sigi-sagan ibiltzeko.



Uda betean ginen, eta alokairuko morroiak ez ginen indartsu ikusi. “Hobe duzue autoa hartzea. Edo motorra behinik behin”. Baina ezagutzen genuen uhartea, pandemia betean aurkitu genuen ihesbide onenetakoa izan zen; bigarren bisitan genuen beldurra zen ea askoz turista gehiago egongo zen, eta autorik gabe egiten genituen ibilbidek desberdin aurkituko ote genituen. Baina ez, berdin-berdin daude 32 ibilbideak. Kala galduetaraino joateko, faroetaraino iristeko, mahastien eta bestelako soroen artean ibiltzeko eta autoak debekatuta dauden txokoetaraino ailegatzeko ibilgailurik egokiena da.

Eivissako ferrytik jaitsi eta La Savinako portuan bertan dagoen turismo bulegoan hartu genuen ibilbideen planoak. Es Pujols herria, uharteko gune turistiko handiena (betiere Formenterako dimentsio txikian, zer ikusirik ez Mediterraneoko porlanezko txoko masifikatuekin), lau kilometro ingurura dago, Estany Pudent aintziraren ertzetik joanda. Herritik kanpo dagoen hondartza batetik hurbil hartu dugu ostatua; bizikletek argia dutela

Erreportajea zabaltzen, Cap de Barbariako itsasargia, Formenterako lekuri ezagunenetakoa. Ezin da motordun ibilgailuz iritsi, baina bai bizikletaz. Ezkerrean, Cala en Baster; uharteko kalarik ederrenetakoa da, eta erraz irits daiteke bizikletaz Sant Ferran zein Es Pujolsetik. Lerro hauen gainean, ilunabarra Estany Pudent aintzira gazian.



baieztatu, atzean frutarako erabili ohi den kaxetako bat, motxila eta beharrezko dugun guztia egiteko, eta prest gaude. Garraioa, kirola, autonomia, denetik pixka bat, eta edozein txokotara iristeko moduan.

Egia da bizikleta hartu eta berehala izerditan gaudela. Baina distantziak ere laburrak dira; eta bideak, errepide nagusietatik aparte, Estany Pudenten ertzetik kasu, Sant Francesc Xavier uharteko “hiriburura” doan kilometro bateko aldapa txikia hasten den arte. Herriko plazan kafe bat, freskagarri bat edo ogia tomatearekin hartu eta hurrengo ibilbideak zein kala edo itsasargitara eramango gaituen erabaki. Eta ilunabarrean etortzean -herriaren gaineko erroten bidetik, kasu-, izozkiren bat hartzeko geratu, edo azken erosketak supermerkatuan, bizikletako kaxan paratu, ostatuko bidea hartu aurretik. Plazako tabernan Formenterako katalan berezian diharduten; formenterec hizkera Eivissakoaren antzekoa da, eta oso desberdina era berean katalanezko gainerako lurraldeetatik, baita Mallorcatik ere.

UHARTEA HUSTUA Izan ere, Balear Uharteen kontzeptua kontu moderno da, eta oro har uharte bakoitzak gainerakoetatik oso desberdina den



nortasuna garatu du. Pitiusa uharteak osatzen dituzten Eivissaren eta Formenteraren artean dago lotura bakarra, eta erraza da ulertzen: Formentera jendez hustu zen XIV. mendearen amaieran, izurriteari ihesi eta Ipar Afrikako piraten erasoen beldurrez. Mediterraneoan zituzten jomugarik garrantzitsuenak, eta uharte txikiak lapurreta, harrapaketa eta esklaboak hartzeko lekuri egokienak ziren. Zenbait mendez ez zuen berriz biztanle egonkorrik izan, eta piraten geraleku bihurtu zen, Afrikatik Europara bidetan. XVII. mendean hasi ziren berriz ere Formenterara biztanleak iristen, aldameneko Eivissatik. Ez da harritzekoa, beraz, hizkuntzan, ohituretan eta jaietan ere bata bestearen ispilua izatea sarritan. “Orain turismoarekin ez da gauza bera, baina garai batean Karmen egunez edo Andra Maritan ohitura zen Eivissatik lagunak eta senideak etortzea, gaueko ordu txikie tara arte. Soroetan-eta lo egin eta berriz Eivissara biharamunean”, diosku plazako ostatuko ugazabandreak.

Formentera berreraikitzean, oraindik ere eraso beldurra bazela erakusten dute XVII. mendearen amaieran piratak uxatzeko eraikitako defentsa dorreak. Lau dira Formenteran bertan, eta bosgarren bat s’Espalmador itsas zabalean dagoen irlan dago.

Ezkerretik eskuinera, La Savinako portutik Ses Illeteseraino itsasertzetik doan bizikleten ibilbidea. Uhartearen mendebaldean, Cala Saona inguruan, harrizko paisaiak eta sarguneak urpekaritzarako toki paregabea dira. Sant Francesc Xavier uharteko herri nagusiaren gainean dagoen haize-errotetako bat. Hurrengo orrialdeetan, La Savinako portuaren beste aldean dagoen S’Estany des Peix, txalupa txikiz betetako badia. Hegoaldeko kala bat, Migjorneko hondartzara begira. Torrent de s’Alga, arrantzaleek arraina lehortzen jartzen duten txoko berezia.

**Ekialdetik
mendebaldera 18
kilometro ditu
Formenterak,
dozena bat baino ez
ipar-hego. Hain
turistikoa den
uharte txiki batek
arriskua dauka,
udan batez ere,
autoz betetzeko.**



Ekialdetik mendebaldera 18 kilometro ditu Formenterak, dozena bat baino ez ipar-hego. Hain turistikoa den uharte txiki batek arriskua dauka, udan batez ere, autoz betetzeko. Formenterak neurri bereziak hartu ditu kanpotik autoak ekartzea mugatzeko, gehien kutsatzen dutenak batez ere. Baina horrez gain, aspaldiko nekazari bideetan antolatu diren ibilbideei esker, edozein txokotara irits daiteke errepide nagusitik aparte. Bidexka horietatik harrizko etxalde dotoreak, Torrent de s'Algako moila txikia Migjorn hondartza luzera hegoalde kostalde guztiari begira, eta Cap Barbariara doan errepideraino iritsi gara; autoz edo motorrez doazenek hesiaren aldamenean aparkatu eta oinez egin behar dituzte azken 1,7 kilometroak. Bizikletaz ziztu bizian egiten da “Lucia y el sexo” filmak famatu zuen itsasargira arteko errepidea. Handik hurbil Es Cap de Barberiako dorrea dago.

Formentera mendebaldeko kostaldea paisaia lehorreko da, harrizko bidez eta pистez. Labarrak dira nagusi, baina Cala Saona hondartza ikusgarria ere kostaldeko tarte honetan dago. Hautsezko pedalkada batzuen ondoren, begientzat gozagarria da harea zuriarekin eta ur gardenarekin topo egitea ilargi Erdiko itxura daukan badia itxian. Hiru kilometro iparraldera dago La Gavinako dorrea, inguruotako harkaitz gorriak eta Mediterraneoak urpekaritza egiteko txoko paregabeak eratzen ditu Sa Pedrerako muturrera iritsi arte.

UR GARDENAK Iristeko zail diren dorreen kontrastea, Es Pujolsen badiaren amaieran Sa Punt Prima ageri da, uharteko iparraldean XVIII. mendean eraikitako gotorlekua. Formenterako egunen amaierak badia honetan ematen ditugu; gau epeletan ere atsegin da ostaturainoko bi kilometroak bizikletaz egitea. Barnealdean diren Sant Frances Xavier eta Sant Ferran des Roques herriak ere 2-3 kilometrora daude, aldapa txikiak igota, beti giro berezia daukatela, izan afaltzeko, izan ilunabarrean antolatutako ekitaldietarako. Bateko musika emanaldia, besteko aire libreko zinema, ezin atseginagoak dira herriak. Eta bizikletaz itzulera ere maldan behera egiten da.

Formenterako ekialderantz errepidetik aparte dauden bidexketan Cala en Baster hondartza sinestezina dator lehendabizi, irla erabat estutzen den tarteari ekin aurretik, olibondo historikoak, Castell de Can Blai gune arkeologikoa eta Es Caló arrantzale herri atsegin dutoz azkenean. Merezi du herriko hondartza ikusgarriaz gozatzea, batez ere hurrengo geralekua bidean gora baldin bada. Formenterako gune garaiena La Molan dago, hain zuzen ere; autobusez zein oinez ere joan liteke, eta merezi du azoka egunak baliatzea, bidenabar itsasargia ere bisitatzeko. La Savinako portutik egon litekeen txokorik urrunena da, ia 20 kilometrora.

Distantziak ez dira beti bideek eta mapek erakusten dutena, horratik. Azken ibilbidea, La Savinatik bertatik abiatu eta kostaldetik doa, turkesa urei begira, alde batean, aintzira gazia bestean, eta Illetes ederrerrainoko bidea aurrean. Autoek ordaindu beharreko lekua da. Bizikleta, aldiz, beste dozenaka batzuen aldamenean utzi liteke, hondartzara jaitsi eta murgil egin aurretik. Eta autoz ikusterik ere ez dauden bideko ikuspegiak utzita atzean, gainera.

GIDA PRAKTIKOA

IRITSI

Formenterak ez dauka aireporturik; Eivissako ferryan heltzen dira bidaiariak. Sarri dutoz ontziak, baina prezioen artean alde nabarmena egon liteke. Bilbotik urte osoan daude hegaldiak Eivissara, udan Iruñetik ere bai, baita, tarteka Donostiatik eta Gasteiztik ere. Udan Iberiar penintsulatik zuzenean iritsi liteke, Denia herritik abiatzen den ferryan. Uharte txikia izanik, autoak eramateko araudi berezia dago.

IBILTZEKO

Hemen bizikletaz egiteko txangoak proposatu ditugu. Uharte txikia eta oro har laua da, hegoaldeko eta, batez ere, mendebaldeko itsasargietara doazen bideak salbu. Zenbait tokitara iristea debekatuta daukate motordun ibilgailuek. Edozelan ere, ez da falta motor edo auto alogerarik, nahiz eta turista gehien izaten diren udako hilabeteetan prezioek gora egin eta, tarteka, alokatzeko autoak ere falta.

OSTATUA

Formentera ez da merkea, eta gutxi dira hotel handiak; oso garestiak izaten dira gainera. Hala ere, apartamentuak alokatzea ohikoa da, itsasertzekoek prezio altuak izaten badituzte ere, barrualdean merkexegoak dira, familiak edo lagun taldeak joanez gero bereziki.

BACHICABO

Edertasunak ez du izenik







Erreportajea abiatzen duen orrian, Bachicabo gailurrera bidean basoan irekitzen den argiune bat. Ikuspegi dotorea dago Artzena mendilerrotik ekialdera, hasi Toloño eta Kantabriako mendietatik, eta lainoak estaltzen duen Gasteiz eta Arabako Lautadaraino. Aurreko orrian, Los Castros haitza; eta behean, Barrio herrixka, Gaubea bailaran, etxeetako teilatuak izoztuta daudela.





Artzena mendilerroa Euskal Herriko mendebaldeko mugaldean dago. Herri txikiz inguratuta dago, eta mendikate dotorea da, hurbil dauden beste tontor batzuen sona ez badu ere. Ebro ibaitik gertu, Cueto, La Mota eta Bachicabo mendiek Burgos eta Gaztela besarkatzen dituzte, eta Gorbeia, Aizkorri edo Anbotoren sona izan gabe ere, ederrak dira. Elurra gordetzen dute neguan, ezpel zuhaiztiak txoko haiei mediterraneo kutsu handia eman arren.

Testua eta argazkiak **Andoni URBISTONDO**

Kantauri Isurialdean bizi garenok kosta egiten zaigu Mediterraneo isuriko mendietara joatea. Urrun samar daudelako, eta ipar isurialdean non aukeratu badagoelako. Tarteka, ordea, eta neguan egoera antiziklonikoa denean, komeni da Gorbea, Anboto edo Aizkorritik hegora joatea, gailur horiek hegoaldeko begiratzea. Artzena mendikatea Euskal Herrian mendebaldean dagoen mendikatea da, Valderexo, Gorobel eta Ordunteko mendiekin batera (azken horiek Bizkaian). 1.300 metroak ondo gainditzen dituzten mendiak dira, eta ipar isurian kutsu alpino nabarmena dutenak.

Gaubea eskualdea behe lainotik libre izaten da normalean, Gasteiz eta Arabako Lautada ez bezala, eta eguerdirako egunsentiko hotzak azkar bide ematen dio eguzkiaren epelari. Barrio herria da txangoaren abiapuntua, Gaubean. Bailara malkartsu baten beheko aldean dago Barrio, baina goizeko lehen orduetatik eguzki printzek egunsentiko izotza urtu dute. Temperatura zeropetik lauzpabost gradura jaitsi da gauean; baina, hankak eta hauspoa martxan jarrita, hotzik ez. Altuera irabazten den heinean, agerikoa da inbertsio termikoa, egoera antiziklonikoetan eman ohi den meteorologia efektua: hotz gehiago bailararen sakonean, aire hotza bertan geratzen



Orri honetan, eta goiko argazkian, Artzena mendikateko gandra, Cueto eta Risco del Mojon Acuchillado gailurrekin, biak 1.300 metrotik gorakoak, zuri-zuri. Ezkerrean, bi mendizale zakurrarekin, pinu basoan gora. Oin honen gainean, Barrio herrixka Bachicabo tontorretik ikusia, eta ondoan Gorbeia mendia.

delako, eta giro epelagoa mendietan, aire beroa ez delako bailararaino jais-
ten, hain zuzen ere.

Eliza atzean utzi eta burdin hesi bat zeharkatu behar da pista batean gora,
hego ekialderantz. Ordu laurden eskasean pista mendiko xenda bilakatuko
da, eta elurra gure ibilerako protagonista bilakatuko da. Itzalpean goaz,
Bachicabo haitzaren babesean, eta elurrak luze irauten du han, eguzkiaren
berorik gabe. Mediterraneoko pinuak dira nagusi, pagoren bat ere bai.
Basoa argitu egiten da une batean; Portillo de la Hoz lepoan gaude, 990
metrora. Ekialdera Bergonda, Gesaltza eta Arabako Lautada ikusiko dugu,
azken hori behe lainoak irentsita. Iparrera Los Castros haitza dugu (1.056
metro), baina hego mendebaldera egingo dugu, amildegia hankapean utziz.

Ezpeldiak hartzen dio lekukoa pinuari azkar, eta tarteka oso itxi. Mendi-
zaleak begiak ondo irekita egin behar du gorantz, ezpel adarrak bidea bera
estaltzen dutelako. Burua makurtu eta gerria jaitsi behar da tarteka, baina
bidea zinez ederra da. Ez baita oso ohikoa ezpeldi tunel batean ibiltzea.
Ezpel hostoak, gainera, elur geruza handiak pilatzen dituzte, eta bisitariari
eskaintzen dion erretratua oso bitxia da. Tarteka, ezpel festak atsedena
hartzen du, eta panorama ederra erakusten dio mendizaleari.

Lepotik berehala iristen da gailurra, ordu erdi pasatxoan. Gailurrean gu-
rutze zuri handi bat dago, eta txapan 1.173 metro jartzen badu ere, Batxi-
kabok 1.200 metro ditu ofizialki. Bachicabo izenaren toponimia bitxia da.
Pirinioetako Bachimala, Bachimaña eta antzekoen jatorri bera omen du.
“Bachi” hitzak bailara esan nahi du. “Cavo” hitzak, aldiz, sakon esan nahiko
luke. Batxikabok, beraz, bailara sakon.

Gailurretik bistak oso aberatsak dira. La Mota eta Cueto agertzen dira men-
debaldara, Artzena mendikateko bi mendi garaienak (1.319 eta 1.362 metro,
hurrenez hurren), eta Bachicabo baino zailxeagoak. Hegora Sobron eta
Ebro ibaia ikusten dira, baita Umion gailur dotorea ere, Burgosko lurretan,
zuri-zuri. Obarenes mendikateko gailur nagusia da Umion (1.437 metro).
Hegorago dago Santo Domingo piramidea, Errioxako tontor garaiena
(2.262 metro) eta gertuago Toloño, Kantabriako mendiak, Aratz eta Aizko-
rri, Anboto eta Gorbea, Gorobel eta Castro Valnera, Burgos eta Kantabriako
mugan. Amildegi azpian Barrio txangoko abiapuntua txiki ikusten da.

IBILBIDE ZIRKULARRA Itzulerako bidea egiteko bi aukera ditugu: egin-
dako bidea desagitea, edo ekialderantz jo eta Canto Pero lepora iritsi (1.075
metro). Ordu erditxo batean iritsiko gara. Bost minutu lehentxeago bada
lepo itxura daukan txokoa, xendarik gabe. Ez hartu bide hori, eta aurrera
segitu, Canto Pero lepora. Elurra egonda ere, oso agerikoak dira arrastoa
eta bidea. Bertatik igotzen da La Mota mendira, baina igoera hori beste
egun baterako utziko dugu.

Pista eroso bat hartu, eta oharkabean altuera galtzen joango gara, elurra
lurzorutik desagertzen doan heinean. Barrioko lehen etxeak agertzearekin
batera iturri bat ikusiko dugu. Iparrera egin behar da hor, eta hamar mi-
nutu eskasean Barrio herrira iritsiko gara. Neguan, elurrarekin hiru ordu
eskasean egiteko txango apropos eta eroso da Bachicabo mendia.

GIDA PRAKTIKOA

KOKAPENA

Artzena mendikatea Araba
mendebaldean dago, Gaubea
eskualdean, hasi Espejo herrian
eta Valderexoko Parke Naturala
arte. Barrio herrixka Gasteiztik
45 bat kilometrora dago, Pobes
eta Añana-Gesaltzan barrena
joanez gero.

NOLA IRITSI

Bilbotik Miranda Ebro aldera
joan behar da A-68 autobidetik.
80 bat kilometro daude. Iruñea,
Donostia eta Gasteiztik N-I
errepidea hartu behar da, eta
Langraiz-Okan Añana aldera
hartu. Ondoren Espejo, eta
Espejon Barrio herrira, lau
kilometroko bidexka.

EZAUGARRIAK

Mediterraneo isuriko
mendikatea da Artzena, 20-25
kilometro luze eta lauzpabost
kilometro zabal. Ebro ibaia
mugatzen du hegotik, Gaubea
bailarak iparraldetik. Mendi
garaiak ditu, Cueto eta La Mota
garaienek 1.300 metro baino
gehiago baitituzte. Ez da jende
askorik ibiltzen, eta mendi oso
egokiak dira lasai ibiltzeko.
Elurra izoztuta dagoenean adi
ibili behar da, alderdi oso hotza
baita Artzena. Zuhaitzia aberatsa
da, Mediterraneoko pinua da
nagusi 1.000 metrotik behera,
eta ezpeldiak hortik gora.
Behinola otsoak Artzena
mendikatean nagusi omen ziren.
Egun, zoritxarrez, ia ezinezkoa
da haiek ikusi edo sumatzea.





Txotx!

Lagunak, txuleta eta sagardoa

Sagardotegiak erritmoa berreskuratzen ari dira, eta aurten, uzta txikia izan duten arren, denboraldi amaierara arte jendez lepo egongo dira guztiak. Hain gurea den ohiturari berriro heldu nahian, jendea gogoz dago sagardotegira joan eta mahaiaren inguruan sortzen den giroaz gozatzeko, sagardotegiak edaria baino askoz gehiago baitira.

Testua: **Nagore BELASTEGI MARTIN** Argazkiak: **Jon URBE, Jagoba MANTEROLA, Gorka RUBIO** | FOKU

Mundua gelditu zenean, gure ohiturek ere fre-noa zapaldu behar izan zuten. Denborarekin, moldatu egin behar izan ziren, baina orain pixkanaka beren onera itzultzen ari dira. Horietako bat sagardotegien txotx garaia da, Euskal Herriko ohituretan kuttunetako bat, lagunarte edo familiaratean otordu xume baina gozobatez gozatzeko aukera ematen duena. Nolanahi ere, festaren erdigunea janaria eta edaria izanda ere, esan genezake txotxaren amua ez dela hori, mahaiaren inguruan sortzen den giroa baizik. Jendea gogotsu dago eta upategietan taldeentzako erreserbak egitea zaila da jada, asteburuetan behinik behin, dena okupatuta baitute.

Aurtengo uzta txikia dela iragarri zuten denboraldia zabaldu zutenean, baina zapore handiagoarekin konpentsatuko du gabezia. Izan ere, sagardo berria freskoa eta gozoa da. Kolore ilunagoa du, tanino gehiago eta gorputz handiagoa. Bederatzi milioi litro sagardo ekoiztea lortu dute guztira Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako sagardogileek; 2020. urtean, berriz, 12,2 milioi litroko errekorra lortu zuten. Bertako sagarrarekin egindako produkzioa 1,2 milioi litrokoa da, 2020ko 4 milioietatik urrun. 2022. urteko uzta urria izateko arrazoiak desberdinak badira ere, bi faktore erabakigarri azpimarratzen dituzte nekazari gehienek: udaberri eta udako lehortekak, eta bi urterik behin tokatzen den uzta txikia. Nahiz eta kantitatez sagardo gutxiago lortu, onurak ere badaude, noski. Sagardoa zaporetsuagoa da eta denboran egonkorragoa. Adituek badakite klimaren faktorea kontuan izan beharko dutela aurrerantzean, urtez urte egoera zailtzen ari delako, hain zuzen ere. Hori dela eta, sagar barietate desberdinak erabili beharko dituzte eta sagardoa ere desberdina izango da, baina horrek ere ez du zertan txarra izan. Kupel bakoitzak zuku desberdinak gordeko ditu, eta txotxaren esperientzia benetan berezia izango da, horiek dastatzeko aukera egongo delako.





Joan Miro, Parisen eragina ahots propioa lortzeko bidean

OTSAILAK 10- MAIATZAK 28

“Joan Miro. Errealitate absolutua. Paris, 1920–1945” erakusketa ikus daiteke Guggenheim museoan. Dadaismoaren eta surrealismoaren inguruan garatu zituen berrikuntza formalengatik miretsia da Miro, eta arte kontzeptualaren aitzindaritzat ere hartzen da.

XX. mendeko artista nabarmenetakoa izan zenak 1920 eta 1945. urteen artean egindako ibilbideari jarri zaio fokua. Haren ekoizpen artistikoan funtsezkoa izan zen aldia Parisera egindako lehenengo bidaiarekin hasi zuen. “Konstelazioak” egin ondoren, eta urte batzuk kasik mar-

gotu gabe eman eta gero, artistak hondo zuri gainean margotutako obra sail handi bat sortu zuenean amaitu zuen. Hain zuzen ere, lan horiek finkatu zuten sortzaile katalanaren lengoaia, hondo anbiguen gainean flotatzen ageri diren zeinuz osatua. Hasierako errealismo magikotik, pausoz pauso, bere ahotsa nola osatu zuen ikusiko du bisitariak. Nabaria da Mirok historiaurreko artearekiko zuen erakarpina. Bere ohar-koadernoetan hala aitortu zuen, artearen hastapenetara itzuli eta haren jatorrizko zentzu espiritual berreskuratzea zuela helburu.



“Egiteke duguna”, Durangoko Museoan

OTSAILAK 10-MARTXOAK 19

Durangoko Arte eta Historia Museoan Cristina Gutierrez Meurs artista, idazle eta aktibista madrildarraren erakusketa zabalik dago martxoaren 19ra arte. Arkitektura patriarkal baten desberdintasun atabikoa eta emakumeen aurkako indarkeria mota desberdinetara bideratuta dagoen jendartea aztertzen eta salatzen du. Amatasuna desio edo inposaketa gisa erakutsiko du “Egiteke duguna” erakusketan.

Durangon aurkeztutako lana 2000. urteaz geroztik egindako obra biltzen duen erakusketa zirkular bat da. Amatasuna desira edo inposaketa gisa, gorputza bektore gisa, espainiar Estatuan egindako haur-lapurreta edo feminizidioak zenbait euskarriren bidez salatzen dira, gogoetara bultzatzen edo gonbidatzen duten testuekin lotuta. Emakumeen biktimizazio ezean arreta jarri du obra osoak, borrokatzeko duten gaitasunean eta aldaketaren eragile gisa duten irudikapen sinbolikoan.

Modu honetan, gaurkotasuna duten gaiei erreparatzeaz gain, artearen bitartez islatzea bilatzen du Durangoko Arte eta Historia Museoak.

Musika-Música jaialdia, Bilbon

3-5 MARZO

70 kontzertu baino gehiago izango dira Bilboko Musika-Música jaialdian asteburu honetan, eta 1.400 interpretek joko dute, horietatik 800 baino gehiago profesionalak. Hogeita bigarren edizioak musika klasikoa eta literatura uztartuko ditu Beethoven, Liszt, Txaikovski, Schubert edo Mendelssohonen lanekin, Shakespeare, Lord Byron, Ovidio edo Garcia Lorca bezalako egileen idatzietan oinarrituta.



“Fake” gaia hartu du dFeria antzerki azokak Donostian

MARTXOAK 13-16

28 konpainien eskutik, 28 ikuskizun eta 44 emanaldi iragarri ditu dFeria azokak. “Fake” gaia izango du ardatz 29. edizioak. «Begien bistan da puri-purian dagoen gaia dela», nabarmendu dute antolatzaileek. Berezik profesionali zuzendutako azoka da dFeria, baina zuzeneko emanaldiez goza dezake publiko orokorrak. Euskal Herriko eta nazioarteko arte eszenikoen erakusleihu bilakatuko da datozen egunetan Gipuzkoako hiriburua.





SÃO MIGUEL

Azoreetako altxor handiena

Testua: **Ibai AZPARREN** Argazkiak: **Getty Images**

Azore uharteek bederatzi paradisu berde eta bolkaniko gordetzen dituzte Atlantikoaren erdian. São Miguel, uharterik handiena, ez da gainerakoetara igarotzeko lekua, irla preziatuena baizik. Paisaia basatiak, terma ikusgarriek eta tokiko gastronomiak esperientzia ahaztezina bihurtzen dute.



Erreportajea abiatzen duen argazkian, Sete Cidades, Lagoa Azul eta Lagoa Verde-ren ertzean. Lerroon gainean, ezkerrean, irlako te plantazioak. Eskuinean, Furnaseko jatetxeetako lapikoak, lur azpian. Hurrengo orrialdean, Ribeira Grande herria, eta balea bat Ponta Delgadatik hurbil.

Dena hasten da Ponta Delgadan. São Miguel irlako hiriburua da, Azoreetako uharterik handienekoa. Joan III.aren erregealdian hiri mailara igo zuten, uharteko lehen hiriburua, Vila Franca do Campo, 1522ko lurrikarak suntsitu ondoren. Hara iristen dira Lisboatik abiatzen diren hegaldiak, Atlantikoan zehar 1.400 kilometro egin ondoren. Beste aldean, New York 3.900 kilometrora dago. Aintzira eta krater bolkanikoak, berde distiratsuko belardiak, kostalde basatiak eta ozeano sakona; Portugalgo artxipelagoaren sekreturik ederrena da São Miguel, autonomia politikoa duen eskualdea osatzen duten bederatzi uharteetako bat, eta, zorionez, ez da inoiz masa-turismorako helmuga izan.

Portugalgo hiriburutik bi ordu eta erdiko hegaldia egin ondoren, leihatilatik uharteko berdea ikusten hasten da. Ponta Delgada leku ezkutu eta zoragarri frankotara sartzeko atea da. Lehenik eta behin, garrantzitsua da egun erdiko txango bat erreserbatzea, baleak, kaxaloteak, dortokak eta izurdeak ikusteko. Portua leku egokia da, eta agentzia batzuek distantziak eta zaratak errespetatzen dituzte animalia hauei kalterik ez egiteko. Ondoren, auto bat alokatzea ezinbestekoa da uhartean barrena ibiltzeko, komunikazioak ez baitira oso onak. Aireportuan bertan egin daiteke. Ibiltzen hasteko lehen abiadura jarri eta bidaia ahaztezin bat daukagu aurrean, Hawaii «europarrean» barrena. Mendebaldean, Sete Cidadesek postaleko irudi bat erakusten du: etxe zuriak Lagoa Azularen eta Lagoa Berdearen ertzean. Mendi artean ezkutatuta, kayak batekin zeharkatu daitezke. Egun berean Ponta da Ferrariaiko termetan bainatzeko aukera dago, mendebaldeko kos-



taldeko "geoleku" babestuan. Naturako ikuskizuna eskaintzen du: ur termalak, ozeanoarekin bat egiten duen igerileku naturala.

Iparraldeak mila aukera eskaintzen ditu, baina bertakoek bi gomendatuko dituzte: Santa Barbarako hondartza munduko surflarien txokoa da, eta Porto Formosoko eta Gorreanako te plantazioak Europako bakarrak dira. Edariak indarberritzeko aukera dira, eta doan zerbitzatzen dute. Iparraldera bidean geldialdia egin behar da –Gobernuko web kamerek zeru garbi baten berri emanez gero– Lagoa de Fogo, toki turistiko ospetsuan. Mendien artean hondoratutako aintzira ikusgarria.

Ekialdeko herri txikiek uharteko biztanleen bizimodua erakusten dute, eta bertako itsaslabarrak, ilunabarrak eta basilika historikoak ikus daitezke. Falal de Terran topa dezakezu trekking-erako bidezidor ezin hobea, amaierako sariarekin: Salto Prego, bainatzea derrigorrezkoa den ur-jauzia. Ponta Delgadara itzulita, platerik goxoena probatu behar da: Furnaseko lapikokoa. Sumendiaren inguruan 50 zulo baino gehiago daude, non jaki hau 96 gradutan prestatzen den, eta herriko jatetxe guztiek bere zulo propioa daukate. Ponta Delgadan prezio onean aurkituko daitezke mariskoa duten jatetxe bikainak, eta Associação Agricolan, uharteko haragirik onena.

Zazpi egun nahikoa dira uhartea zeharkatzeko, baina irlak gehiago eskaintzen du. Edozein leku ezin hobea da geldialdi txiki bat egiteko eta paisaia bolkanikoa eta landaredi basatia ikusteko, bertako produktuen gastronomia dastatzeko. Horrek guztiak udarako ihesaldi ezin hobea bihurtzen du helmuga; eta aspertuz gero, beste zortzi uharte daude bisitatzeko, bakoitza bere berezitasunekin, ozeanoaren erdian ezkutatutako paraje ederrekin.





SIEKOPAI, LURRIK GABEKO HERRI KOLORETSUA

Siekopai nazioan, Lagartocochako Amazoniako eskualdean, «kolore anitzeko herria» deitzen diote beren buruari, gorputz pintura deigarriagatik eta antzina Amazonasko oihanaren bihotzean eraman ohi zituzten apaingarriengatik. Irudian, Siekopai neska indigena bat makillatzen ari da komunitatearen bigarren bilera nazionalen. Amazoniako Siekopai herria lekuz aldatu zuten gerra, merkataritza eta kultura intrusioen ondorioz, eta Ekuadorko eta Peruko mugaren arteko herrixken artean sakanatuta bizi da, petrolio zelaiez, palmondo landaketez eta errepide sareaz inguratutako landa herrietan, noizbehinka lan gorrak eginez. Kultur iraungipenaren atarian, Siekopai liderrek diote bizirik iraute kontua dela beren antzinako lurra eskatzea. «Gure amets nagusia gure lurraldea berreraikitzea da, gure nazioa, gure familiak ibai hauetan biltzea. Ur horietan gure aitona aipatzen zizkidan espirituekin bizitzea», dio Justino Piaguaje buruzagi komunitarioak. PEDRO PARDO



LURRALDE OKUPATUETAN ESKIATZEA

Hermon mendiko orban elurtu txiki horrek bi mundu bereizten ditu. Batean, Siriako gerra isildua. Bestean, turista israeldarren eski pistak. Egun garbi batean Damasko hiria teleaulkitik ikus liteke. Israelek Golanako Gainak kendu zizkion Siriari 1967ko Sei Eguneko Gerran, eta, ondoren, lurraldea bereganatu zuen, nazioarteak inoiz onartu ez duen beste maniobra batean. JALAA MAREY



ARGIA ETA IKATZA, KONTSUMOARI BURUZ HAUSNARTZEKO DEIA

"Coalescence" instalazio artistikoa, Paul Cockledge diseinatzaile britainiarrak sortua, Liverpooleko katedralean. Sei metroko diametroa duen artelan hau tona erdi antrazita ikatzez osatuta dago, eta urtean 200 watteko bonbilla bat pizteko behar den energia islatzen du. Obrak energiaren kontsumoari buruz hausnartzera bultzatu nahi du. PAUL ELLIS



PARAJE MENDITSUA JAUZI ARTEAN

Eski alpinoko mundu mailako elitea Alpeetako pistetan elkartu da berriro, 2023ko Munduko Kopako finalean. Irudian, paraje menditsu ederra atzean duela, Johan Clarey frantziarra, gizonetzkoen jaitsierako entrenamendu saioan salto egiten, Courchevelen. FX. MARIT

GURTZA ETA ARGAZKI AUNITZ, WAT ARUN-EN

Thailandia bere tenplu eta santutegi ugariengatik da ezaguna, eta Wat Arun gurtza leku ezagunenetakoa bat da. Egunsentian lehen argi-izpiak portzelanazko akaberetara iritsi eta sortzen duten distiragatik da ospetsua. Hiri zahar baten antza ere badu lehen begiratuan. Irudian, turista txinatar bat, Thaiandiako jantzi tradizionala soinean duela, tenplu budistan. MANAN VATSYAYANA





ARABIA SAUDIKO PETRA, GIZATERIAREN ONDARE

Al-Hijr (Hegra) aztarnategian zizelkatutako antzinako nabateoen hilobiak, Saudi Arabiako ipar-mendebaldeko Al-Ula hiritik gertu. Al-Hijr K.a. I. mendekoa da eta, Petraren ondotik, nabateo kulturaren bigarren hondar garrantzitsuen-tzat hartzen da. Unescok Gizateriaren Ondare izendatu zuen Saudi Arabiako lehen lekua izan zen, 2008an. THOMAS SAMSON



DEMOKRAZIAREN ALDEKO BORROKAN, TURISTAK URRI

Hiru emakumezko, inken arropa koloretsuak jantzita, turis-tek argazkiak atera diezazkieten jarrita, Cuscon (Peru). Tu-rista kopuruak behera egiten jarraitzen du, herrialde osoan prozesu konstituziogile baten alde egiten ari diren protes-ten ondorioz. Gobernu eta Poliziaren errepresio bortitzak 60 hildako baino gehiago utzi ditu dagoeneko. CRIS BOURONGLE



HONDARTZA OSO BAT LEIHOAREN ATZEAN

Dakarreko Virage hondartza leku oso ezaguna da surflarien artean. Asteburuetan senegaldarrek bisi-tatzen dute gehienbat, nahiz eta atzerritar batzuk ere hurbiltzen diren, batzuetan hegaldi baten aurretik edo ondoren, aireportu-tik nahiko gertu dagoelako, zehazki 1,5 kilometro eskasera. Hondartza ondoko txosna eta ta-berna txikietan jan-edana bi-dezko prezioan aurkituko dugu. Leku aproposa bertan motxila utzi, garagardo bat hartu eta, iru-diko emakumea bezala, ozea-noari begira egoteko. JOHN WESSELS



PEDALKADA AZKARRAK

Argazkilariaren “klik” kirurgikoa, Josie Knight, Elinor Barker, Katie Archibald eta Neah Evans txirrindularien irudia harrapatzeko. Emakumezkoen taldekako lehen lasterketan lehiatu ziren britainiarrak, Suitzako Grenchengo Tissot belodromoan jokaturako Europako Txapelketetan. Hala ere, jokoan zeuden 44 dominetatik 13 eskuratu ondoren, Alemaniak kendu zien lehen postua. SEBASTIEN BOZON



PASIERAN, GERRAN JARRAITZEN DUEN MOSKUN

Han itxaron zituen alferrik Napoleonek Moskuko giltzak; han joan ziren soldaduak frontera, Bigarren Mundu Gerran Sobietar Batasuna defendatzera. Hiriko toki ospetsuenetako bat da Poklonnaia muinoa. Egun turista gutxik bisitatzen dute gerran dagoen herrialdea, eta errusiarrak dira Garai-penaren Parketik gertu ibiltzen direnak. ALEXANDER NEMENOV



GADISAR, OASI ARTIFIZIALA INDIKO BASAMORTUAN

Thar Indiako Rajastanen dagoen basamortu hareatsuko eskualde zabala da. Hondar artean, baina, herrialdeko estatu ospetsu honek sekretu artifizial bat gordetzen du: Gadisar aintzira, Rawal Jaisal erregeak 1156. urtean eraikia. Gaur egun, Indira Gandhi kanaletik iristen da ura lakura eta, beraz, ez da inoiz lehortzen. SEBASTIAN BERGER



ENTZUN. HITZ EGIN

Hitz egiteko,
entzun egiten
dugulako.

naiz:irratia

Donostia 93.8 / Urola 91.8 / Goierri 102.2 / Legazpi 94.6 /
Bilbo 92.2 / Gernika 96.7 / Durango 97.4 / Gasteiz 91.5 /
Bortziriak 103.1 / Leitza 95.1

naiz:irratia

irratia.naiz.eus

